

S21EB1: Honako molekula hauek baditugu: CS_2 , H_2S eta NH_3

- Marratzu itzazu haien Lewis egiturak.
- Justifikatu haien geometriak balentzia geruzako elektroi pareen aldarapen teoria (BGEPAT) erabiliz eta azal ezazu molekula horien polaritatea.
- Azal ezazu, arrazoituz zer motatako lotura edo indar intermolekularra gainditu behar den konposatu horietako bakoitza egoera likidotik gasera pasatzeko.

S21EC2: Zenaki kuantikoen multzo hauek kontuan hartuta $(4,2,0,+\frac{1}{2})$ $(3,3,2,-\frac{1}{2})$ $(2,0,1,+\frac{1}{2})$ $(2,0,0,-\frac{1}{2})$

- Esan ezazu zein diren posibleak eta zein ezinezkoak atomo bateko elektroi batentzat. Arrazoitu zergatia.
- Possibleak diren kasuetan, esan ezazu zer orbitaletan egongo den elektroia.
- Ordena itzazu aurreko ataleko orbitalak energia gutxienezkotik gehienekora.

S21EC3: Espezie kimiko hauek emanda : Ar, Ca^{+2} eta Cl^- :

- Idatzi itzazu haien konfigurazio elektronikoak
- Ordena itzazu erradiorik txikienetik -handienera. Arrazoitu erantzuna.

2022UB1: X eta Y elementuen zenbaki atomikoak 16 eta 17 dira, hurrenez hurren:

- Idatzi haien konfigurazio elektronikoak
- Deduzitu X eta Y-rekin osatutako formula molekularra.
- Adierazi X eta Y-rekin osatutako konposatuaren geometria Lewisen egitura kontuan hartuta.
- Azaldu zein den elementurik elektronegatiiboena, eta esan X eta Y-rekin osatutako molekula polarra den ala ez.

2021UC3 Aukera itzazu, arrazoituz, substantzia hauen artean:

Li, CH_4 , NH_3 , H_2O , LiF, Ne

- Hidrogeno-loturak eratzen dituzten bi konposatu.
- Irakite-tenperatura txikienak dituzten bi konposatuak.
- Egoera likidoan elektrizitatearen eroaleak diren bi konposatu.